

V - BESTELAKOAK

URAREN EUSKAL AGENTZIA

MEDITERRANEOKO ARROEN BULEGOA

Arabaren, Barrundiako udalerrian, Larrea herrian dagoen etxebizitza batean sortutako hondakin urak isurtzeko baimena

Espediente-zenbakia: VDP-A-2021-0007

Eskatzailea: Andrea Garazi De Olano Martínez Gil

Andrea Garazi De Olano Martínez Gilek eskatu du, Barrundiako udalerrian, Larrea herrian (Los Caleros auzoa 1. zenbakia) dagoen etxebizitza batean sortutako hondakin urak isurtzeko baimena, instalatuko den arazketa sistema batekin eta horretarako dagokion dokumentazioa aurkeztu du.

Hori guztia jendaurrean jartzen da, guztiak jakinaren gainean egon daitezela, hogeita hamar eguneko epearen buruan, iragarki hau ALHAOn argitaratu eta biharamunetik hasita, eskatu den baimenaren ondorioz nolabaiteko kalteren bat hartuko dutela uste dutenek erreklamazioak aurkez ditzaten lurralde-bulego honetan (Forondako Atea 9-11- 01010 Vitoria-Gasteiz). Espedientea han egongo da ikusgai.

Vitoria-Gasteizen, 2021eko martxoaren 25ean

Isurketa arduraduna

AITOR BELDARRAIN URIONDO